



Helduen Literatura

Pendrive
Arrate Mardaras
Susa, 2013

Ahaztu eta galtzen ditugun gauzen aitzakian (h)istori(o)a(k) berridazten

NARRAZIO SORTA HAU, istorioen sare hau, idazle batek ahaztutako pendrive batekin hasten da. Editore batek liburu hau osatzen duten zatiak topatu eta argitaratzea erabaki zuen. Maitasun istorioak biltzen ditu liburuak, zenbait garai historikotan sakabanatuta daudenak eta maitatzeko modu desberdinak agertzen dizkigunak. Egiturarekin jolasean ibili da idazlea, edo editorea, edo pertsonaien taldea, eta irakurlea balizko editorearen hasierako eta amaierako oharrekin gidatzen dute, baina baita tarteka azaltzen den Sinda pertsonaiaren ibilbideek lagunduta ere, edo idazlearen sormen prozesuan kiribilduta geratuz batzuetan.

Narrazio sorta honetako ipuin bakoitzari hizkera, testu mota eta ahots narratibo zehatzak eman zaizkio. Garaian garaiko lexikoa eta kontatzeko era berezia bilatu du egileak, aukera linguistiko eta estilistiko desberdinak eginez, adibidez, hikaren erabilera, latinaren eraginez euskarara heldutako hitzen baztertzea, gutun formatua, edo bigarren pertsonaren erabilera.

Gaia, esan bezala, maitasun istorioak dira. Hainbat garai historikotan irudikatu ditu narraziook eta bakoitzak du bere berezitasuna, baina errepikatzen

diren ideia batzuk ere badaude, hala nola, askatasuna eta honen gabezia, denboraren iragaitea eta honen arrastoa orainaldian, eta bizi-aro desberdinetako pertsonen arteko (botere) harremanak.

Amodioaren gazi-goza agertzen zaizkigu maitasuna sua eta lotura bezala irudikatzearekin batera: arauen urraketa, banatu eta geroko berriro hurbiltzeko saioa, biolentzia eta jabetza, gorputzak edo buruak ekarritako sentimendua eta, azken ipuinean, euskal literatura garaikidearen ipuin ezagun baten jarraipena: Joseba Sarrionandiaren *Narrazioak* liburuko *Ginebra erregina herbestean*-en hurrengo eguna, hurrengo urtea, hurrengo amodio-gatazka.

Historiaurretik erromatarren arora garamatza, Erdi Arotik gerra zibilera, eta 2000. urtera ere ailegatzten da. Euskal Herrian kokatzen dira narrazio guztiak eta maitatzeko modu anitzak dakarzkigu. Bizitzarekin borrokan agertzen zaizkigu pertsonaiak, haien desira eta nahiei jarraika eta azkenik literaturaren altzoan bidaiatzera eta emozioekin hunkitzera gonbidatzen gaitu narratzaileak:

“Ikusle hutsak izan gaitezke-eta! Ez al gara, ordea, protagonistaren azalarekin janzten gehiengotan? Eta beste pertsonaia askoren azalarekin ere askotan? Horrela, bidaia ezezagun baterako izena ematen dugu. Inongo arriskurik ez duen bidaia baterako izena, edozein mementotan amai dezakeguna, irribarre batzuek edota negar anpulu batzuek ordainduko duguna. Pagotxa hutsa!”.

Beste pasarte batekin amaitu nahiko genuke kritika, lan honen sintesia izan daitekeena:

“Pertsonaiei beste aukera bat eman behar diegu, eta gure buruari ere bai. Maitasuna lehergailu bat da, eskuetan leher lekizuke eta elbarri utzi, edo urre-meatz batean leher egin lezake, eta betiko aberatsarazi. Egizu ahalegina, Sinda, eta maitasunari beste bertsio bat eskatu, beste amaiera bat besterik ez bada”.

Amaia Alvarez Uria



1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com